

Lekeitio. Hirugarren adineko pertsonentzako animazioa

Lekua: Lekeitio (Bizkaia) <http://www.lekeitio.com>
Lan-mota: Hirugarren adinekoentzako animazioa
Helburua: Animazio-jarduerak egitea hirugarren adinekoentzako egoitza batean
Egunak: Uztailaren 1etik 15era // Uztailaren 16tik 30era
Adina: 18-26
Plazak: 20
Mota: Estatu-mailakoa
Hizkuntza: Euskara eta gaztelania
Kuota: 72€

Lekeitio, Bizkaiko herri xarmanta, kostaldean dago. Bertan mendia eta itsasoa lotzen dira inguru zoragarria sortuz. Lea-Artibai eskualdean kokatuta dago, eta 1,8 km²-ko zabalera du. Lekeitiok gaur egun 7.510 biztanle ditu.

Arrantzari lotua bizi den herri honetan, alde zaharrak arrantzale eta eskulangileen garai bateko bizimodua gogorazten digu eta bertako kale estu harriztatuetan ezkutatuta badira hainbat etxetzar, dorretxe eta komentu, denak bizitasun handiko portura begira. Han oraindik maiz ikus daitezke arrain freskoa portura dakarten ontziak edo sare-konpontzaileak lanean. Horrelako giro apartak, udan, inguruetak eta atzerriko hainbat bisitari erakartzen ditu. Isuntza eta Karrazpio hondartzak era aitzakia ederra dira Lekeitiora hurbiltzeko.

Dena da patxada eta lasaitasuna, izan ere, Lekeitio hiri motelen sarean (CITTÁ SLOW) sartzera doa: portu eta hondartzako paseoak, eguzki-sartzea edo neguan olatuak harkaitzetan hausten ikustea. Kultura-egutegia ere ekitaldiz beterik dago: azokak, kale-antzerkia, erakusketak, festak eta tradizioak.

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, hirugarren adinekoen egoitza aipa daiteke, 80 pertsona hartzen dituena.

2000. urtean, eta Udalaren proposamenez, aurreneko auzolandegia antolatu zen. Egoitzan dauden pertsonen aisialdiko aukerak eskaintzea da auzolandegiaren helburu nagusia.

Estekak ikusteko, sakatu "Ctrl" eta egizu klik testuaren gainean
www.lekeitio.com
<http://www.bizkaiaeuskalkostaldea.com/>

LANAREN DESKRIBAPENA

Boluntarioek Lekeitioko hirugarren adinekoentzako etxean lan egingo dute, bertan bizi direnei lagun egiten eta animazio ekintzak prestatzen. Auzolandegiaren **helburu nagusiak** hauek dira:

- Belaunaldi desberdinen arteko elkar-ezagutza eta harremanak bultzatzea.
- Bertako bizilagunen artean, norberaren gaitasunak kontuan harturik beti ere, sormena eragingo duten ekintzak bultzatzea uda honetan.
- Gazteen artean elkartasuna sustatzea.
- Herritarrak adineko pertsonak gizartean duten zeregin garrantzizkoaz jabetzeko jarduerak egitea.
- Oroimen historikoa gorde eta mantentzea, nagusien kultur eta ahozko ekarpenak bilduz.
- Adinekoen egoitza herri osoari eta beste biztanle-talde batzuei zabaltzea.

Zehazki honako lan hauek egingo dituzte boluntarioek:

- Psikomotrizitate ekintzak.
- Paseo eta irteeretan adinekoei lagundu.
- Aisialdiko eta jolas ekintzak antolatu.
- Festak eta talde jolasak antolatu.
- Egoitzako kideen arteko harremanak bultzatzeko ekintzak.
- Adinekoen egoitzatik kanpoko harremanak errazteko ekintzak.

ANIMAZIO-EKINTZAK

Animazio-taldeak zenbait ekintza prestatuko ditu partaideen arteko harremana sendotzeko, eta eskualdeko kultura eta ohiturak ezagutarazteko (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, kultur bisitaldiak...).

Ekintza Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Dutzarako eta igerilekurako xukadera
- Burkoa (behar izanez gero)
- Berokia eta euritarako arropa (badaezpada ere)
- Mendirako eta kiroleko oinetakoak
- Eguzkitarako txanoa edo kapela
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorro edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

Eraman beharreko agiriak:

- Nortasun agiria edo pasaportea
- Osasun-txartela (ez ahaztu!!!)

AUZOLANDEGIA ETA LOTAKO TOKIA NON

Auzolandegia non: "Uribarren Abaroa" hirugarren adinekoentzako egoitzan (Iñigo Artieta etorbidea 2), Lekeitioko herrigunean
Lekeitio Bilbotik 55 km-ra eta Donostiatik 72 km-ra kokatuta dago

Lotako tokia non: "Antiguako Ama" Lehen Hezkuntzako Ikastetxean (Larrotegi auzotegia, 5) Lekeitio.

Ikastetxearen ondorengo espazioak erabiliko dira auzolandegirako:

- Gimnasioko dutxak eta komunak erabiliko dira.
- Otorduak egiteko: sukaldea eta jangela.
- Lotarako: bertako ikasgelak egokituko dira, literak eta koltxoiak jarrita

NOIZ BERTARATU

Txanda bakoitzaren lehen egunean, **18:00etan, Lekeitioko udaletxean.**

Ordu horretarako iritsi ezin denak, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

HELTZEKO MODUA

[Lekeitio kokatzeko mapa](#)

[Lekeitori buruzko informazioa](#)

Bilbotik:

BIZKAIBUS autobusak. (Irteera: Termibus)

Ordutegia: 6:45etik 20:45era orduro

Tel.: 902 22 22 65

<http://www.bizkaia.net>

Zehazki:

<http://apli.bizkaia.net/apps/danok/tq/index.html?Idioma=ES>

Donostiatik:

PESA autobusak. (Irteera: Pío XII Plaza)

Tel.: 902 10 12 10

<http://www.pesa.net>

AUZOLANDEGIA NOIZ AMAITZEN DEN

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00-10:00 bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari **istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguru**a egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahalmen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio **Eusko Jaurlaritzari**, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzan aseguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA HELBIDE ELEKTRONIKOA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel: **945 01 95 01 - 945 01 95 36**

- Helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak - Arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean duzu (ikusi Auzolandegiak - *Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea* izeneko atalean).